

Kulunkaulkia

AINARA ELIZONDO LIZARRAGA

“NO HAY MEDICINA QUE CURE LO QUE NO CURA LA FELICIDAD”

-Gabriel García Márquez-

Esne bila bidali zutenean, ezer gutxi susma zezakeen Elenek itzuleran aurkituko zuenaz, edo aurkituko ez zuenaz, hobe. Arrapaladan jaitsi zituen eskailerak saltoka, dendara egiten zuen bisita bakoitzak atzetik ordain gozoa baitzekarren.

—*Dendariak itzultzen dizkizun txanponekin nahi duzuna erosi*— amaren eskuzabaltasuna hitz bihurtua.

Zorrotza zen ama, baina Elene dendara bidaltzen zuen aldiro, gustuko izaten zuen alabari bizipoz pixka bat ematea litxarrerria moduan. Sekula ez zion hitz itsuririk zuzentzen, eskolan ere aitzakiarik gabeko notak ateratzen zituen, beraz, ama ere noizbehinka malgua izaten saiatzen zen. Zaila zen ama-alaben artekoari neurria eta tamaina hartzea, baina biak nahiko ondo moldatzen ziren. Tarteka-marteka, hala ere, purrustaldiak ezin ekidin zitezkeen, hori bai. Arratsalde hark, gainera, denetarik merezi zuen, baina gozotik bereziki bai. “*Jakingo balu gaixoak...*” esaldia iltzatzen zitzaion Milari buruhezurrean, ordulariari begiratzen zion bitartean. Elene dendara jaitsi zenean, anbulantzia pausatu zen atarian, txoria kabian bezala.

—*Badatoz, Mila*— egin zion oihu Ernestok, balkoitik etxe barrura sartzearekin batera.

Ederki kosta zitzaien laugarren pisuraino igotzea. Lotsaz ireki zien Milak atea, eraikina diseinatu izanaren errua berak balu bezala. Barka eta barka etengabe, zeharo apuratua. Langileek ondotik ez larritzeko, euren ofizioak halakoak zituela. Arkitektoek mugikortasun arazoak dituzten gurasorik ez dutela esanez ahopean.

—*Freskagarririk arnasa lasaitzeko?*

Erizainek eskainiari buruaz ezetz erantzun eta Ameliaren gelara sartu ziren. Hantxe zen, leihotik so, eguzki beharrean egoten den landarea bailitzan. Zimurrek mendean hartuagatik, oraindik mingaina dantzatzeko trebe. Gazte jendea gustuko zuen eta horregatik, etorritakoei irribarrez erantzun zien, garai batean etxe azpitik igarotzen zen trenbidea non zen eriaz erakutsiz. Kulunkaulkiari sitsa zerion, baina Ameliak maite zuen. Azken urteak bertan eserita pasa zituen kristalaz bestaldera begira. Jaso zuen ezkon opari bakarra izan zen, bere aitak eskuz egina. Pitzatuta bazegoen ere, bazuen bihotza, haltzak ez bezala.

Bat-batean, haize ufada sartu zen leihoaren zirrikitutik lotsagabeki. Norbaitek azken agurra eman nahi zion bidaiari ekin aurretik.

—*Ez negarrik egin*— amultsuki Ernestok emazteari, sorbalda besoaz inguratzen zion artean.

Supituki Atarratzeko gazteluko kantuaraz gogoratu zen, eta nola amak alaba saldu zuen abestian. Tamalez, istorioa alderantzizkoa zen laugarren solairu hartan; alaba zen amarekikoa moldatu zuena, baina ez zikoizkeriaz, bere hobebharrez baizik. Medikak ere hala gomendatu zion, zuen adina ikusita eta gaitzarekin zeraman urte mordoa kontuan hartuta. Berarentzat onena zentzura joatea zen, bere ingurukoentzat, neurri batean, ere bai.

Alabaren aurpegiarekin kontrastean, Ameliak ezin zion irribarre egiteari utzi. Urteak ziren bere gelan hain gizonezko dotorerik ez zela sartzen eta baten prezioan pareta sartu zenean, grazia egin zion bisitak. Mantaletik mentazko bi goxoki atera eta bakoitzari bana eskaini zion. “*Bihotzez oparitzen denari ez zaio ezetzik esan behar*”, tonu serioan. Bakoitzak berea hartu eta baleak antxoak nola, hala irentsi zituzten langileek karameluak. Zorionez, gaixotasunek ez dute beraiekin eramaten ondo ikasitako hura. Beso banatik heldu eta makuluaren laguntzaz zutitu zuten Amelia. Belaunek nekez euts ziezaioketen dardararen lurrikarari. Ohikoa zen erizaintzat, ez, ordea, Ameliarentzat. Makuluari josita zuen eskuak ere bizitza propioa zuela zirudien. Esku-ohean etzanda eramane zuten nolabait, *Markesaren alaba* kantatzeari utzi gabe. Milarentzat bere bizitzako unerik zailena izan zen irailaren 8ko arratsalde hura. Ameliak bazekien ez zuela gehiago ikusiko sitsak estalitako kulunkaulkia, ezta leihoko eguzki izpietatik babesten zuten gortinak ere. Akabo mentazko goxokiak eta garai bateko trenbideari begira pasatako ordu luzeak.

—*Hotel batean bezala egongo zara, ama, ikusiko duzu ze lorategi ederra duen*— alabak ozen, ama ez ezik, bere burua ere konbentzitu nahian. Umeek eta adinekoak bezala, batzuetan txikikeriekin zoriontsu izaten ikasi beharko lukete heldu askok. Goxoki edo loreen usainarekin konformatzen esate baterako, bestelako ur handietan hankak busti gabe.

Urrunean galdu zen anbulatzia zuhaitz artean. Amelia ez ezik, hantxe zihoan bere gaixotasuna ere zahar-etxera bidean. Onena beti ez da errazena izaten.

Elene etxera itzuli zenean, sekulako festa antolatu zioten gurasoek. *Ongietorri* zioen kartela josi zioten bere gelako ateari, erdi erorita, erdi zuzen. Ama apainketa gaietan baino hobeto moldatzen zen sukaldean eta jarritako kartel okerra zen horren etsenplu. Aitak ondotik “*esan diot ez nuela oso zuzen ikusten, baina...* “. Gerrarik onena baino bakerik txarrena hobea zela zioenak, bazekien zertaz ari zen.

Zazpi koloreko puxikek estaltzen zuten Eleneren gelako artilezko tapiza. Hilabeteak ziren ez zela bere ohean etzan. Azken hiruhilabeteko azterketak gogorregiak izan ziren, nahiz eta merezi izan zuen saiatzea. Erizaina zen letra guztiekin. Xiringa eta hesgailu artean eman zituen azken lau urteak, astebururo amaren hozkailutik janaria ebatsiz, gero aste osoko otorduei nolabait aurre egiteko. Hala ere, arbolak fruitua bezala, nekeak ere eman zuen berea eta gurasoak harro ikusteak pozez betetzen zuen.

Zeharo akituta egonagatik, kaxoiak unibertsitatetik ekarritako arropaz eta bestez betetzen hasi zen. Behingoz, arrotz sentitzen zen bere etxe propioan; etorkin, hainbat urtetan bere erresuma izan zen gela txikian. Ahaztua zuen, baina joan zenez geroztik, gelako armairu bazterrean gordeta jarraitzen zuen argazkiak. Amak plastikoa jarria zion hautsik har ez zezan eta eskerrak horri. Amona Ameliaz zuen azken irudiak hantxe egin zituen hamabi urte aski erraz, isilik eta inori trabarik egin gabe, bera zen bezala. Gogoan zuen Elenek esnearekin igo zen arratsalde hartan bere gelan sartu eta nola pasa zuen negar batean gau osoa. Ez zion sekula barkatu amari amonaz agurtzen ez utzi izana. Aitak amonarentzat onena huraxe zela ulertarazi nahi izan zion, baina alferrik izan zen. Dendan erositako goxokiek ere ezin izan zuten arindu Eleneren amorrua eta oinazea eta horregatik, bi egun beranduago erietxera joan eta amona ikusi arte ez zuen bakerik izan.

—*Kasketa ederra ordukoa ezta, maitea?*— Ernestok ate ondotik alabaren pentsamenduak irakurri balitu bezala.

Begiak oraindik ere bete egiten zitzaizkion, esnearen aitzakiarekin amonaz agurtzerik izan ez zuela gogoratzean. Horregatik nahiago zuen kafea, edo ozpinaren garraztasuna, edo egia gordina. Esnerik ez, behintzat.

Curriculum gizontzako, Elenek egunkarira jo zuen biharamunean. Ez zuen denborarik galdu nahi. Gizarte Segurantzako artaldean bazkatzu nahi zuen, langileen tribuko kide sentitu. Lanaz kexatzeak suposatzen zuen adrenalina igoera probatu. Lekurik ez zen lekuan bere espazioa erdietsi, hasieran debalde lan egin behar bazuen ere. Behingoz “ikasle” etiketat azaltu eta mantala jantzita beharri ekin.

Argia egin zen arte, edo hobe, telefono dei bihurtu.

Bizpahiru hilabeteren buruan iritsi zitzaion lehen aukera. Lanaldi osoko abentura asteko sei egunetan. *“Akabo larunbatean lagunekin afaltzera joateko plana”* etsituta berekiko. *Batzuetan norberak nahi duena ez da benetan nahi duena, baina benetan nahi badu, nahi duena dela esan nahi du edo...auskalo.* Elenek ez zekien batzuetan zergatik pilatzen zitzaizkion hain pentsamendu konplikatuak kolpetik eta zergatik bihurtzen ziren egia ametsak larunbatetan eta ez astelehen goizetan, esaterako. Tabakoa osasunerako kaltegarria zen moduan, ametsak ere arrikutsuak ziren, batez ere une desegokietan betetzen baziren.

Egoitza zaharra izanagatik, txukun zaindua zegoen. Eleneri lagunak zahar etxe batean lan nola egin zezakeen maiz galdetzen bazioten ere, berak beti erantzun bera ematen zien: *“zuek ere, zahartzean, nahiko duzue norbaitek zaindu eta irribarre egitea”*. Bere adiskideek, ordea, ez zuten geroaldian pentsatzen; arropan, kalimotxoan eta mutiletan besterik ez. Haien buruan ez zen geroaldirik sartzen, ez makulurik, ez ezintasun edo gaixotasunik. Eleneri, bitartean, norbaiten eguzki printza izateak ilusioa egiten zion, eta are gehiago adinekoa bazen. Horregatik, lanerako deitu zutenean, malkoak amildu zitzaizkion masailetan behera, Olentzerok ekarritako oparirik ederrena egin baliote bezalaxe. Txiki-txikitatik hurkoari lagundu behar zitzaiola irakatsi ziotenetik, argi izan zuen horretan jardun nahi zuela heldu izatean ere. Amona gaixotu zenean, berriz, are argiago ikusi zuen bere bokazioa zein izango zen eta noraino iritsi nahi zuen. Herdoilak jotako gorputzek arima izaten jarraitzen zutelako bere ustez, nahiz eta askok kontrakoa pentsatu. Halaxe, amonak eskuaren dardarari eusterik ez zionean, Elenek bostekoa ematen zion brometan eta biek algaraz bukatzen zuten beti.

—*Ama, bisita duzu*—entzun zuen ozta-ozta, belarriko tramankuluaren bolumena altxatzen zuen bitartean.

Nereak bakarrik utzi zituen gelan biak, medikuak agian Elenerekin bakarrik hitz nahiago izango zuelakoan edo. Oso jatorra zen sendagilea, adinekoekin tratatzen ohituta zegoena. Elenek Nereari erakutsi zion moduan, bizitzaren aldi bakoitza adin egoera bat besterik ez zen, eta sarri esaten zion alabari: “*gaur gazte zara, baina bihar zeu izango zara kulunkaulki honetan eseriko dena*”.

Medikua ez zen berririk ekartzera etorri, dosia handitzera baizik.

—*Zalantzarik baldin baduzu, galdetu lasai*—atseginez sendagileak.

Elenek ez zuen ezbairik, ordea, alderantziz. Dena zekien gaixotasunaz, amona Ameliaren erialdian ere amak liburutegiko liburu guztiak irensten zituen modu bertsuan. Orduan ikasi zuen Elenek aberastasuna gutxitan jasotzen zela oinordetzan gaitzen aldean.

—*Dopamina faltak baino gehiago kezkatzen naute aurpegiko zimurrek*—ironikoki sendagileari.

Sendagileak eskua sendo eusten zion eta Elenek beste eskuarekin sekulako indarraz egiten zion atximur, hurrengo bisitara arte. Hala ere, bisita hura desberdina zen. Ohi baino luzeagoa eta berarekin ezustekoa zekarrena... zorionez.

Medikua oraindik gela barruan zela, Nerea sartu zen trajez jantzitako gizon ezezagunarekin. “*Bisita gutxiagoko arratsaldeak izango dira!*”, Elenek marmarka. Alabak ez zion esana beste inor espero zuenik ama ez aztoratzearren. Nereari malkoak erortzen hasi zitzaizkion, uneko zirrara ezin ekidinez. Inork ez zuen etxe hartan halakorik espero. Elenek ez zuen ezer ere ulertzen, harik eta trajez jantzitako gizasemeak medikuaren aurrean sobre itxia luzatu zion arte. Justuan ireki ahal izan zuen gutunazala, gaixotasunaren dardarak eta momentuko urduritasunak utzita. Argi zioen:

“*...bizitza osoan herriko adinekoen alde eta gaixoaldian erakutsitako adoreaगतik, aurtengo urrezko intsignia aho batez Elene Lizardi andrearentzat...*”.